

“EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN 2014-2020rako EUSKADIKO PROGRAMA OPERATIBOAREN 2017. URTEKO TXOSTENAREN HERRITARRENTZAKO LABURPENA”

Europako Gizarte Funttsaren 2014-2020rako Euskadiko Programa Operatiboak, 2015eko abuztuaren 27an Europako Batzordearen erabakiz onartuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gai sozioekonomiko eta laboretan dauden beharrak konpontzera zuzendutako jarduketak jasotzen ditu. Guztira 107,65 milioi euroko kopurua du; horietatik, erdia (54,12 milioi euro) Europako Batasunak jarriko du eta beste erdia euskal erakundeek. Erabilgarri dagoen finantziarioa euskal gizartean eragin handiagoa eta balio erantsia sor ditzaketen jarduketetan kontzentratu da.

Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuaren parte-hartzeaz gain, EGFren Euskadiko Programa Operatiboa lurralde eremu ezberdinetako agente ekonomiko, sozial eta gizarte arlokoen parte hartzea sustatzeko bokazioarekin diseinatu izan da. Parte-hartze hau lehiaketa bidezko prozeduraz gauzatu zen, Programa Operatiboaren erakunde onuradunak aukeratzeko.

Programaren eremuan erakundeak garatzen ari diren egitasmoak eta bertan parte hartzen duten pertsonen kopurua jarraian datorren taulan laburbiltzen dira:

Erakunde onuraduna	Egitasmoa	Ardatza	Parte-hartzaileen kopurua aldiaren hasieratik
Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzua	Lehen Aukera Programa Atzerrian zentroak dauzkaten euskal enpresentzako kontratatuzeko laguntzak Langabetuei zuzendutako prestakuntza ekintzak burutzeko laguntzak	1 Ard._OT8	Guztira: 4.559 Gizonak: 2.892 Emakumeak: 1.667
Garapen – Garapen Agentzien Euskal elkartera	HAZI egitasmoa langabetu gazteak lan-munduratzeko	1 Ard._OT8	Guztira: 364 Gizonak: 154 Emakumeak: 210
Donostiako Sustapena SA	Donostia Gazteekin: hirian indarra hartzen ari diren eta estrategikoak diren sektoreetan gazte langabetu kualifikatuei zuzendutako lan mundurako integrazioa	1 Ard._OT8	Guztira: 76 Gizonak: 37 Emakumeak: 39
Gipuzkoako Foru Aldundia	Emekin-Emakume ekintzailea Txekin- Enpresen sorrerako prozesuan enpresa-proiektuei laguntza	1 Ard._OT8	Guztira: 183 Gizonak: 56 Emakumeak: 127 Sortutako enpresak: 476



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtza
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Euskadiko Lan Sozietateen Elkargoa (ASLE)	Lanzituz-Lan Sozietateak Sortuz	1 Ard._OT8	Guztira: 103 Gizonak: 64 Emakumeak: 39 Sortutako enpresak: 21
Vitoria-Gasteizko Udala	Emprende Local 20	1 Ard._OT8	Guztira: 219 Gizonak: 101 Emakumeak: 118 Sortutako enpresak: 89
Bilbao Ekintza E.P.E.L.	Bilbao Sortzen – Ekintzaileei laguntzeko ibilbidea	1 Ard._OT8	Guztira: 1.554 Gizonak: 741 Emakumeak: 813 Sortutako enpresak: 46
Arabako Foru Aldundia	OINEZ Programa – Araban gizarte bazterketa egoeran edo/eta arriskuan dauden kolektiboak landa eremuan sartzeko zerbitzua	2 Ard._OT9	Guztira: 14 Gizonak: 6 Emakumeak: 8
Ehlabe	Auker Ability desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte- eta lan-integrazioa	2 Ard._OT9	Guztira: 924 Gizonak: 560 Emakumeak: 364
Emaús Bilbao SCIS	Gizarte-inklusioa i3 – Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko ibilbide integralak	2 Ard._OT9	Guztira: 131 Gizonak: 96 Emakumeak: 35
Sendotu Aldi Berean elkarte (Peñascal, Agiantza, Cáritas, Erroak, Zabaltzen, Gaztaroa eta Araba)	Gizarte-inklusioko Sendotu Aldiberean	2 Ard._OT9	Guztira: 1.869 Gizonak: 1.155 Emakumeak: 714
Suspergintza Elkarte	Emak-Tiva – Indarkeria sexista egoeran edo gizarte zaugarritasun egoeran dauden emakumeentzako gizarteratze soziolaborala.	2 Ard._OT9	Guztira: 103 Gizonak: 0 Emakumeak: 103
Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzua	Lan-merkatu arruntean desgaitasuna duten pertsonen integrazioarako neurri gisa, enplegu lagundurako jardunak garatzeko laguntzak Enplegu zentro berezietako lanbide-jarduerarako laguntza-unitateen finantziatorako laguntzak	2 Ard._OT9	Guztira: 5.811 Gizonak: 3.659 Emakumeak: 2.152
Lea Artibai ikastetxea, Koop. Elk.	TEP Egitasmoa - Technology Entrepreneurship Program	6 Ard_ GB	Guztira: 12 Gizonak: 7 Emakumeak: 5

Bizkaiko Foru Aldundia	Bizkaian gizarte-berrikuntza sustatzea	6 Ard_GB	Guztira: 37 Gizonak: 16 Emakumeak: 21
---------------------------	--	----------	---

Ondorio gisa, 2017an, 7.602 pertsonak parte hartu dute programan (4.313 gizonak eta 3.289 emakumeak); guztira 15.959 parte hartzaile aldian (9.544 gizonak eta 6.415 emakumeak).

Langabeen parte-hartzeari dagokionez, guztira 4.084rekin lan egin da (2.161 gizonak eta 1.923 emakumeak); guztira 8.706 langabe aldian (5.110 gizonak eta 3.596 emakumeak).

Zentzu honetan, 2.755 parte-hartzailek (1.594 gizonak eta 1.161 emakumeak) 2017 urtean lana lortu dute eta 4.225ek (2.420 gizonak eta 1.805 emakumeak) denboraldi osoan.

Era berean, Programak, 2. ardatzaren bitartez, gizarte bazterketan edo horretarako arriskuan dauden 4.298 pertsonari (2.641 gizoni eta 1.657 emakumeri) arreta ematea ahalbidetu du. Pertsona hauen artean 1.099 (571 gizon eta 528 emakume) lana bilatzen ari dira, hezkuntza edo prestakuntza sisteman integratuta daude, kualifikazioren bat edo lanen bat lortzen dute, norbere konturakoak barne, EGFK kofinantzatutako ekintzetan parte hartu ondoren.